

# URBANBAT Fest

Arkitektura, hirigintza eta hir jaialdia

VOL. 14 | 2025 | Bilbo



Hacia Ningún lugar dokumentalaren fotograma. Paula Beharokia

## Ez zurean ez nirean

Jaialdiak arkitekturak eta hirigintzak hirian lekua bilatzen jarraitzen duten gazteen errealitateak nola eralda ditzaketen esploratzera gonbidatzen gaitu

DEIALDIA

---

Arkitektura  
Hirigintza  
Kultura  
Hiria

# 1. Gaia: Ez zurean ez nirean

Hiria aukeren espazioa da, baina baita bazterketarena ere. Hiri-plangintza eta biztanleentzako beharren artean dagoen etengabeko deskonexioak bereziki kaltetzen ditu pertsona ahulenak, eta horien artean daude hiriaren baitan beren lekua aurkitzen ez duten gazte ugari.

Munduko hiri askotan 30 urtetik beherako pertsonak biztanleriaren % 50 baino gehiago diren arren, haien ahotsak eta beharrak ez dira agertzen diseinu arkitektonikoko eta hiri-plangintzako prozesuetan. Hiri-plangintzak arlo ekonomikoaren eraginkortasuna eta lan egiten duen helduen populazioaren mugikortasuna lehenesten dituen bitartean, gazteak eta nerabeak arazo gisa ikusten dira maiz, balio gisa baino, eta beren beharrak ez dira behar bezala asetzen, espazio baztertuetara bidaliz.

## **Zer esan nahi du sarritan haientzat diseinatuta ez dagoen hiri batean gazte izateak?**

UNICEFen ikerketa baten arabera, gazteen % 70ek uste du hiriek ez dutela haientzako gune egokirik. Parke generikoen diseinuan ikusten dugu hori, haien beharretara egokitutako kultura-azpiegiturarik ez izatean, etxebizitza eskuratzeko zailtasunean eta espazio publikoan bizitzeko moduak ikusezin bihurtzean.

Hiri-plangintza eta arkitektura tradizionala produktibitatea eta kontsumoa lehenesten dituzten eredu funtzionalistetan oinarritzen dira, gazteen eguneroko esperientziak eta praktika kulturalak alde batera utzita. Igarobideak diseinatzen dira — etorbideak, garraio-geltokiak, lantokiak —, baina ez egonaldiak. Logika horrek gazte nerabeen beharrak ikusezin bihurtzen ditu, adibidez, gastu ekonomikorik ez dakarten topalekuak, besterik gabe egoteko lekuak.

Gazteen Partaidetzarako Behatokiaren duela gutxiko txosten batek erakusten du nerabeek kalean edo merkataritza-zentroetan ematen dutela denbora gehiena, ez inguru horiek nahiago dituztelako, baizik eta ez dutelako nahikoa alternatiba. Gaur egungo hirietan, nerabezaroak "pasatzea espero" duen egoera deserosoa dirudi, hiriko bizitzaren etapa aktibo eta sortzailatzat hartu beharrean.

Gainera, gazteentzako espazioek estereotipoei erantzuten diete: kirol-parkeak edo jolas-aretoak, talde horren interes eta bizipen aniztasuna aintzat hartzen ez dutenak. Neska gazteek, adibidez, segurtasunik gabeko edo inklusio gutxiko espazio horiek aurkitu ohi dituzte. Hiri-diseinuan genero-ikuspegirik ez izateak nerabeei eragiten die bereziki, askotan leku jakin batzuk saihesten baitituzte beldurragatik edo deserosotasunagatik.

Hiria gazteengandik/gazteekin/gazteentzat egitea

Hiri benetan inklusiboak eraiki nahi baditugu, hiri-arkitektura ikuspegi kritiko eta propositibo batetik birpentsatu behar dugu, egungo ereduak gainditzeko aukera posibleak irudikatuz.

***Gazteak hiri-plangintzan eta arkitektura-espazioen diseinuan sartzea ez da soilik justizia sozialeko ekintza bat, baizik eta berritzeko aukera bat. Haien begiradak ez daude paradigma tradizionalek baldintzatuta, eta horrek aukera ematen die alternatiba erabat desberdinak irudikatzeko.***

Nolakoak izango litzateke gazteen esperientzietatik eta nahietatik abiatuta diseinatutako hiriak? Nola eralda dezakete beren praktika espazialek espazio publikoa? Zein paper jokatu dezake arkitektura-diseinuak gazteenak diren biztanleak onartzen eta ahalduz dituen hiri bat eraikitzeko?

## 2. Deialdiaren helburua

Jaialdi honen barruan, deialdi bat irekitzen da hirigintza, arkitektura, diseinua, artea eta kultura arloko proiektuak eta ekimenak aurkezteko, urte honetako gaiarekin lotura dutenak.

**Jaialdian parte hartzea ekainean eta irailean artean Bilboko leku desberdinetan zuzeneko sei podcastetan parte hartzea izango da. Podcast bakoitza gazteen garapenarekin lotutako egoera bati buruzkoa izango da, eta bertan, besteak beste, arkitekturak eta hiri-diseinuak duten papera jorratuko da.**

Horretarako, proposamenek gai hauetako batekin edo gehiagorekin lotura izan beharko dute:

1. Gelako espazioa
2. Etxebizitza
3. Plaza
4. Auzoa
5. Hiria
6. Hiritik at (periferia, landa-eremua, etab.)

Gainera, jaialdian aurkezten diren proiektuen aukeraketa bat abenduan Bilbon egingo den argazki-erakusketa baten parte izango da.

## 3. Nori zuzenduta dago?

Deialdi hau hirigintza, arkitektura, artea eta kultura arloko proiektuak eta ekimenak aurkezteko irekia dago, jaialdiaren gaiari buruzko proposamen berritzaileak aurkezteko: hiria eta gazteak.

Banakako pertsonak zein taldeek (profesional independenteek, erakunde publiko edo pribatuek, elkarteek, kolektiboek...) parte har dezakete, eta ez dago mugarik pertsona bakoitzak aurkez ditzakeen proposamen kopuruan.

## 4. Hautatze kriterioak

Jasotako proposamenak ebaluatzeko, kontuan hartuko dira ondorengo alderdiak:

- Jaialdiaren gaiarekin duen egokitasuna.
- Hirigintza eta arkitekturarekin duen lotura
- Proposamenaren interdisziplinarritasuna, beste arlo batzuekin duen harremana eta hibridazioa baloratuz, hala nola artea, praktika kulturalak, gizarte-zientziak eta beste edozein diziplina garrantzitsu.
- Proiektuaren berrikuntza-maila.
- Biztanlerian eta lurraldean duen eragina.
- Ekimenean parte hartzen duten kolaborazioak eta agenteak.
- Proposamenaren erreplikagarritasuna beste testuinguru batzuetan.
- 35 urtetik beherako kideak dituzten pertsona edo aldean parte-hartzea bereziki baloratuko da.

## 5. Diru laguntza

Hautatuak izanez gero, jaialdiak proiektu bakoitzeko pertsona baten joan-etorrien, ostatuaren eta dieten gastuak estaliko ditu, gehi 250 €ordainsari gisa. Ordainsari horiek kontrafaktura gisa ordainduko dira jaialdian parte hartu ondoren.

## 6. Epaimahaia

Epaimahaia jaialdiaren antolakuntzako kideek osatuko dute. Hautaketa epaimahaiak jakinaraziko du aurkezteko epea amaitu eta 30 eguneko epean. Epaimahaiak hainbat proposamen hautatu ditzake, baina proposamenen kalitatearen arabera hautaketa hutsik gera daiteke. en función de la calidad de las propuestas recibidas.

## 7. Argitalpena

URBANBATEk aurkeztutako lanak zabaldu ditzake, bai formatu digitalean, bai paperean, bere komunikazio-kanalen bidez (web orria, sare sozialak, kartelak, buletinak, jaialdiaren katalogoa, etab.). Era berean, antolakuntzak ahalegin handia egingo du hautatutako proposamenak tokiko, nazioko eta nazioarteko hedabideetan zabaltzeko.

## 8. Jabego intelektualaren eskubideak

Deialdi honetan parte hartzen duten guztiek URBANBATi baimena ematen diote podcastetan egindako elkarrizketak audio eta bideo formatuan grabatzea eta erreproduzitzeko.

## 9. Egutegia

- **Deialdiaren irekiera:** 2025eko martxoaren 5a
- **Proposamenak aurkezteko epea:** apirilaren 6a, 23:59 arte
- **Hautatuak jakinaraztea:** aurkezteko epea amaitu eta 30 eguneko epean
- **Jaialdiko ekitaldiak:** 2025eko ekaina eta iraila artean. Data eta ordu zehatzak beranduago jakinaraziko dira.

## 10. Eskaearak bidaltzeko

Bidali zure eskaera [formulario hau](#) betez, 2025eko apirilaren 6a, 23:59 baino lehen.

*\*Formularioa betetzeko, Gmail kontu batekin "logeatu" behar zara, eta eskatzen dizkizugun argazkiak igo ditzazun.*